



Jakingarriak

Irakurzaletasuna

Desde 1. Poche en el "primer más monomito y analógico que registra la historia de cualquier país, en cualquier época de la historia". El libro también tiene los derechos por Enrique Sánchez de Lozada, padre de Gonzalo y de Antonio Sánchez de Lozada, en 1985, en el "Primer Encuentro Sobre la Realidad Política Boliviana", para luego indicar que esos palabras no se refieren a la persona física o moral del señor Poche, sino al problema económico que el representante dentro de la comunidad boliviana.

Andrés Solís Rada, al escribir el libro "La Historia del Presidente", no ha tenido la intención de ofender a las personas físicas o morales de los hermanos Sánchez de Lozada, sino al problema económico que el representante dentro de la comunidad boliviana.

Los Editores

Esta obra para el niño que fue y "La Historia del Poder" de Carlos Sánchez de Lozada, autor de "La Historia del Poder" y "La Historia del Poder".

Esta obra para el niño que fue y "La Historia del Poder" de Carlos Sánchez de Lozada, autor de "La Historia del Poder" y "La Historia del Poder".

EL PODER Y LA CAIDA

ALVARO ALMARAZ

El dictador elegido

Martin Sivak

LA FUERZA POPULAR

BOLEIVIANA

OF SI ACASO

BOHACO

LITERATURA

LA GUERRA

GUERRA

FRANCISCO CUADROS SÁNCHEZ

DEL PODER

Argitaratzailea:
Mondragon Unibertsitatea
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Laguntzailea:
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Erredakzioa:
Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza
Tfnoa: 943-714157
Faxa: 943-714032
Helbide elektronikoa: liburutegia@huhezi.edu

Zuzendaritza:
Elena Lopez de Arana

Erredakzio Kontseilua:
Nerea Alzola, Goretti Orbea, Idurre Alonso,
Iñigo Artech, Pello Jauregi

Itzultzailea:
Edorta Agirre

Euskara zuzentzailea:
Asier Irizar

Diseinua:
Alex Azkarate

Imprimategia:
Antza inprimategia

L.G.: SS-981/92

ISSN 1697-6215



Izei Astarloa (2010)

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

4 Liburu berrien albisteak

6 Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Irakurzaletasuna

11 Sarrera

12 Gotzon Barandiaran

Bizitza irakurri

14 Pello Añorga

Huheziko 3. mailako ikasle batzuen testigantza, irakurzaletasunari buruz

22 Elena Oregi

Donostiako haur liburutegia eta haur liburuaren dokumentazio-gunea

28 Itziar Zubizarreta

Bihotzaren taupadez

BALIABIDEAK

32 Galtzagorri elkarte

34 Eskoriatzako haur liburu mintegia



Vaello Orts, J. (2009).
El profesor emocionalmente competente. Un puente sobre "aulas" turbulentas.
Barcelona: Graó

Irakaslearen rolaz mintzo garenean, nabarmendu ohi dugu lan konplexu, aberatsa, grinatsua, gero eta konplexuagoa, aberatsagoa eta grinatsuagoa dela. Hain zuzen, lan honen xede nagusia ikasleen trebakuntza integrala lortzea da, etengabe aldatzen ari den XXI. mendeko gizartearen baitan, horrek eskola-markoan isla zuzena duela: ikasle ezberdinak, jatorri anitzekoak, nahi, aspirazio, kompetentzia eta aurreko esperientzia desberdinak dituztenak, eta, gainera, ingurune ezberdinetan biziko direnak.

Joan Vaellok proposatzen duenez, ikaslearen halako profil batek emozionalki kompetentea den irakasle bat eskatzen du, horrekin bere alderdi sozioemozionala azpimarratuz, dimentsio kognitibotik edo, are gehiago, bere prestaketa akademikotik haratago joanez.

Golemanen Adimen Emozionalaren eskeman oinarrituta, egileak dio irakasleak -betiko ikastuna, ikasten jarraitzeko beharra eta gaitasuna duena, baita hazteko eta bere burua garatzeko ere- batetik, kompetentzia intrapertsonalak garatu behar dituela (*auto-ezagutza, auto-kontrola, auto-estimua, auto-motibazioa, estilo atribuzionala edo "locus of control", erresilientzia*); eta bestetik, kompetentzia interpertsonalak (*asertibitatea eta elkarrenganako errespetua, enpatia, komunikazioa, gatazken kudeaketa, eragina eta ahalmena, negoziazioa*).

Liburuak gonbidatu egiten du gogoeta pertsonala egin dezagun, beste lankideekin mintza gaitetzen kompetentzia intrapertsonal eta interpertsonalei buruz. Azken finean, irakaslea etengabe dago trebakuntza eta hazkuntza prozesu batean, non bere lankideak ere partaide diren, guztiak proiektu komun batean murgilduta baitaude: beren lana azaltzen duen hezkuntza proiektua.

Zenbait gai aztertzen dira, beti ere dimentsio praktiko, dinamiko eta positibo batetik, zeren irakasleak bere izaeratik baino ezin dezake hezi eta transmititu. Hona hemen gai batzuk:

- Irakaslearen jokamoldea versus entsegu-akatsa;
- Akatsak hazkunde iturburu bezala ulertzea;
- Okupazio eta preokupazioaren artean bereiztea; hobe arduratzea kezkatzea baino;
- Irakaslearen abileziak ikasle, beste irakasle (babes sareak) eta familiekiko harremana hobetzeko;

- Komunikazioa, enpatia, entzute aktiboa.

Laburbilduz, liburu erraza, praktikoa, dinamikoa eta interaktiboa da, irakurleari, hezitzaile rol horretatik irakasleari eta irakasle taldeari galdetu egiten diena, beti ere jakinda "ezin dela ez ikasi, ezta ez irakatsi ere; ikasleak denetik ikasten du uneoro; eta irakaslea beti ari da irakasten, ekintzagatik zein ez-egiteagatik".

Juanjo Otaño

Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Garabide Elkarte (2010).
Euskararen berreskuratzea: Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk.
Donostia: Garabide Elkarte.

Euskararen berreskuratzea: Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk liburua eta dokumentala argitara eman berri ditu Eskoriatzako Garabide Elkarteak. 70 orri pasatxoko libururuxka eta 40 minutuko dokumentala.

Biek ala biek antzeko edukia jaso dute, nahiz era ezberdinean: euskarak bere biziberritze partzial honetan egin duen bidea erakusteko informazioa. Argazki orokor bat. Hizkuntza orain lau-bost hamarkada zein egoeratan zegoen eta egun noraino etorri den.

Baina gakoak emateko intentzio nabarmenaz. Eta era didaktikoan. Bide hori nolakoa izan den, ze sentimenduk elikatu gaituen, zer egin den, nork egin duen, ze baliabide izan diren, ze erabaki hartu diren... eta titulutik bertatik adierazten den bezala, gako nagusiak behin eta berri azpimarratuz. Alderdi teorikoa ere badu liburuak, hasieran hizkuntzak berreskuratze markoa eskaitzen baita, oinarri soziolinguistikoko jasotzen dira, eta hizkuntzak zelan galtzen diren, eta zelan berreskura daitzekoen azaltzen da. Gero euskararen esperientzia laburbiltzen da eta amaitzeko, sintesi gisa edo, oinarriko ikasgaiak eman nahi zaizkio irakurleari, euskararen esperientzia oinarri hartuta hizkuntza gutxituak dituzten munduko beste komunitateei zuzendutako mezuak.

Garabidek, izan ere, ez du liburu hau Euskal Herrira idatzi, ez soilik euskal herritarrentzat, behintzat. Nazioarteko garapenerako lankidetzan aritzen da Garabide

elkartea, eta bere jarduerak euskararen biziberritzeko esperientzien konpartitzea du oinarri. Hemen egindakoak besterentzat baliagarri izan dezakeena erakustea: “Sumatzen dugu euskararen esperientziak munduko jatorrizko zenbait hizkuntzaren berreskuratze bidea argitu dezakeela...” dio hitzaurreak; “Herri gehienak ez dira beren hizkuntzarekin gertatzen ari denaren larritasunaz ohartzen. Gainera ez dago biziberritzeko estrategiei buruzko kontzientzia garbirik... Uste dugu euskarak izan duen bilakaera partekatzeak eta ezagutzera emateak ekarpena egin dezakeela...”

Lanaren koordinazioa eta edukiaren zehaztapena zein zuzendaritza Garabidek egin du eta Lore Agirrezabal izan da lan horien koordinatzailea. Edukien kontrastea osatzeko HUHEZlko Lanki ikertegiko SARE lankidetzak bulegoko kideak, eta Xabier Mendiguren, Dionisio Amundarain, Joseba Intxausti, Lore Erriondo, Xamar, Julen Arexolaleiba eta Joserra Gartzia izan ditu.

Jose Anjel Aldai
Garabide Elkartea



Azkarraga, J. (2010).
Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa. Zenbait gogoeta, Gizabidea Fundazioaren hausnarketa estrategikorako.

Jada topikoa da hezkuntzaren krisiaz hitz egitea. Badira gutxienez bi hamarkada krisi horretaz hitz egiten dela. Berdin hitz egiten dute horretaz hezkuntza-munduz kanpoko eragileek eta hezkuntzako eragileek beraiek. Gai horrek hamaika analista, pedagogo, soziologo, politikoa eta psikologori eman dio jaten.

Horregatik, krisi hitzak eszeptizismoa eragiten du hezkuntza-munduan. Are gehiago, horrekin batera erreformak iradokitzen badira. Seguru asko ez baita egongo hezkuntza arloak adina erreforma izan dituen beste arlorik politika publikoan. Eta emaitzak ez dira izan espero zirenak.

Sarritan, eszeptizismo edo mesfidantza sentimenduekin batera, hezitzaileen artean aurki daiteke nola baiteko inpotentzia sentimendua, eta baita neke-sentazioa ere, hezkuntza-mundua etengabe birmoldatze-

aren aurrean. Liburuak ez luke sentimendu horietan sakondu nahi. Pista batzuk eskaini nahi lituzke gertatzen ari denaren azpian dagoena hobeto ulertzen laguntzeko. Eta, ahal den neurrian, proiektu motibagarri baterako aurrerapausoak ematen laguntzeko.

Beharbada inoiz ez da izan hezkuntza, zentzurik zabalenean, hain tresna estrategikoa edozein herrialderentzat. Beti izan da mimoz zaindu beharreko munitate estrategikoa, baina are gehiago gaur egun, gure gizartearen “ezagutza” bera baita ardatz nagusi.

Liburuak bi gairi egin nahi die argi. Batetik, zein diren gure garaiko oinarritzko ezaugarrietako batzuk; bizi dugun eta bizi gaituen aro historikoa ulertzeak ahalmen-egiten baikaitu gure bizitzan eragiteko (indibidual eta kolektiboan). Bestetik, zer hezkuntza-eredu eta zer hezkuntza-desafio darizkion gure garaia.

Horretarako, gure munduari buruzko hausnarketa panoramiko transdiziplinarra proposatzen da: elementu historikoak, soziologikoak, psikologikoak, ekonomikoak, antropologikoak eta pedagogikoak aintzat hartuta begiratzen zaio gaurko gizarteari. Hauxe da gogoeta harilkatzen duen kontua: zer funtzio bete behar du hezkuntzak zalantza betetako eskenatoki historiko berronon?

Proposatzen den gogoetak ibilbide hauxe egiten du: aspektu teoriko eta abstraktuetatik osagai zehatz eta praktikoetara labaintzen da. Zoom zabal batez hasten da gogoeta, gaur egungo gizartearen eta hezkuntzaren analisiarekin. Pixkanaka, hezkuntza berritzeko lerro xume eta zehatz batzuetara hurbilduko da.

Azken helburua honakoa da: Debagoienak historian zehar bizi izan duen arnas luzeko ibilbide berritzaileari segida eman eta hezkuntza eraikitzen jarraitzea. Etor-kizuneko desfioei erantzun aldera, eskualde kooperatiboa eta gure herria gaituko duen hezkuntza. Pertsonen garapen integrala sustatuko duena. Eta gizartea humanizatzeko balioko duena.

Joseba Azkarraga
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Esan dute

“ Donde viven los monstruos tiene su base en la exaltación de la imaginación como elemento necesario, tanto en niños como en adultos, la posibilidad de dar rienda suelta a ciertas pulsiones atávicas que se ven reprimidas en la vida cotidiana.

Ismael Paredes.
Dirigido, 395,
abendua 2009.

“ Ez dut uste egokia denik umetan fantasiatik neurri gabe elikatzea eta handitan erabat kentzea.

Joxan Ormazabal.
Argia, 2199,
iraila 2009.

“ Heldu askok, ordea, haurrak izan eta seme-alabekin berriz alfabetatzen hasten direnean eskapatu zaien mundu bat deskubritzen dute Haur eta Gazte Literaturan.

Patxi Zubizarreta.
Argia, 2203,
urria 2009.

“ Nire alabari “poesia irakurri” esaten diot eta “hori eskolan emango digute” esaten dit.

Yolanda Arrieta.
Argia, 2200,
urria 2009.

“ Las nuevas tecnologías son necesarias para vivir en una sociedad desarrollada, pero proporcionan actividades fragmentadas y no fomentan ninguna capacidad crítica. En este contexto es necesario incorporar una nueva com-

petencia que convierta la filosofía en un adverbio y enseñe a los alumnos a tomar decisiones personales.

Jose Antonio Marina.
CLIJ, 233,
urtarrila-otsaila 2010

“ [...] La aventura humana me sigue fascinando; la quiero, la venero, y por nada del mundo la cambiaría por la vida de los ángeles o de los animales. Somos los hijos de Prometeo, los depositarios y los continuadores de la creación, nos hemos puesto a remodelar el universo y, en el caso de que hubiera por encima de nuestras cabezas un creador supremo, nos merecemos su orgullo tanto como su ira.

Amin Maalouf (2009).
El desajuste del mundo.
Cuando nuestras civilizaciones se agotan (302. or.).
Madrid: Alianza.

“ En la obra de Arendt el concepto de “tradicición” recibe un sentido político al cual está indisolublemente ligada a una significación pedagógica. Arendt parece adoptar el uso que Quintiliano hacía de este vocablo, que por traditio designaba la enseñanza. De acuerdo con esto, educar es, simultáneamente, el acto de dar una herencia (tradere) y, al mismo tiempo, el acto de legar una herencia a otro para que se la apropie, para que la haga suya y la conserve dándole vida (transmitiere). Se trata con la transmisión, de dar algo a las nuevas generaciones de recién llegados, de volver novedoso lo que ya ha sido. Este es el significado predominante que quiere destacar Arendt en todo momento, lo cual hace que la noción de tradición se aleje del concepto de “tradicionalismo”.

Fernando Bárcena (2009).
Una pedagogía del mundo.
Aproximación a la filosofía de la educación de Hannah Arendt.
Anthropos, 224, 120. or.



Todo acabará bien, y cualquier cosa, sea cual sea, acabará bien.

Juliana de Norwich, en Aleixandre, D. (2009).
Sueño, amigos y ranas.
El Ciervo, 705, 8. or.



Las grandes tradiciones no pueden ofrecer a nuestras sociedades cuadros de creencias, sino que han de brindar otro tipo de realidad, que consistirá en otra forma de acceso de nuestras facultades a la realidad diferente de la que proporciona nuestra vida cotidiana.

Marià Corbí (2007).
Hacia una espiritualidad laica.
Sin creencias, sin religiones, sin dioses (225. or.).
Barcelona: Herder.



[...] El alma verdadera de Europa es la problematización, la existencia de una mente crítica y autocrítica. Viene del Renacimiento, de Montaigne... El alma de Europa es problematizar, interrogar: no quedarse nunca dormida. Toda la historia del pensamiento europeo es una búsqueda de verdad, una pesquisa ininterrumpida de la verdad. Y el alma de Europa se encuentra, a partir del siglo XVIII, en las mujeres, en la música y en la poesía, porque el mundo varonil se concentra en la guerra, en la economía, en la conquista del poder material. Y lo mejor de Europa se queda en las mujeres que, como aristócratas o burguesas, tienen sus salones y ahí favorecen a los poetas, a los músicos. Pienso que el alma de Europa se ve, a partir de ese siglo XVIII, en poetas como Shelley, Novalis, Hölderlin, Rimbaud, entre los escritores y, entre los músicos, Beethoven, Mozart, Schuman... Ésa es el alma de Europa. P. Pero ese espíritu está flotando por ahí... R. Sí, por supuesto. Pero no olvidemos que para revitalizar se necesita un poco más de feminidad, de poesía, un poco más de arte. Hay que tener entusiasmo, razones para reiniciar una esperanza colectiva en los jóvenes, en las mujeres, en los hombres... Hay un montón de buenas voluntades, pero la buena voluntad sin esperanza queda desocupada. Y esa desocupación de la buena voluntad genera desesperación ante la barbarie.

Juan Cruz.
Edgar Morinen elkarrizketa.
El País,
urtarrila 2010.



Cada vez más ciudadanos atraviesan casi sin darse cuenta la puerta de la exclusión social. Encontrarse de buenas a primeras en la calle, sin trabajo, sin recursos y sin fuerzas después de encadenar empleos precarios o años sin un puesto de empleo resulta más común de lo que parece. La actual crisis económica está sirviendo para redefinir el perfil de las personas en riesgo de exclusión, y ampliar el mapa de potenciales afectados desde el estereotipo de colectivos como los inmigrantes o las personas de etnia gitana, a los ciudadanos que se han quedado fuera del mercado laboral, o a individuos con problemas de consumo de drogas y alcohol, jóvenes con dificultades de adaptación y mujeres maltratadas, entre otros grupos sociales.

Pedro Gorospe.
El País,
otsaila 2010.



Creo que el sistema de educación por competencias acaba con la idea de que la educación es mera instrucción. [...] Cuando estudiamos la competencia de emprender, debemos definir qué proyectos consideramos más valiosos para la sociedad, porque serán los que trataremos que los alumnos emprendan. No nos interesa educar la competencia emprender si no establecemos unos objetivos personales y sociales, concretados en un conjunto de valores compartidos.

José Antonio Marina (2010).
La competencia de emprender.
Revista de Educación, 351, 69. or.



Irakasle ona ez da jaiotzen, irakasle on egin egiten da [...] Irakasle ona da irakaskuntzaz kezkatzeaz gain, ikaskuntzaz ere kezkatzen dena.

Idoia Fernández (2010).
Elkarrizketa.
Hikhasi, 145, 19. or.



Sin lodo no hay flor de loto. Sin sufrimiento no se aprende a ser comprensivo y compasivo.

Krsita Tippet (2010).
Conversaciones con Thich Naht Hanh.
Mirar con ojos de compasión.
El Ciervo, 707, 24. or.



La convivencia es una condición necesaria para que tenga lugar el aprendizaje y, al mismo tiempo, constituye una meta educativa tan importante como cualquier otra.

Francisco García Bacete (2009).
Formación inicial del profesorado y de los psicopedagogos
en educación de la convivencia.
Educar, 43, 47. or.



La autonomía (en los centros escolares) es una forma de relación, no de independencia. La autonomía es una forma de relación que se basa en la solidaridad.

Lola Lara; Carbonell (2010).
Entrevista a Ángel Gabilondo.
Cuadernos de Pedagogía, 399, 46. or.



Para mí lo que más merece la pena es la conversación con alguien; estar con alguien, conversar, lo señalaría como uno de los mejores placeres de la vida.

Lola Lara; Carbonell (2010).
Entrevista a Ángel Gabilondo.
Cuadernos de Pedagogía, 399, 49. or.



Bibliothèque Lucioles (Yaoundé-Camerún)





Donostiako haur liburutegia (2010)

Irakurzaletasuna

Berbak. Berben atzetik istorioak daude. Istorioak. Istorioen atzetik liburuak daude. Berbak. Istorioak. Liburuak.

Liburuak modu objektiboan aztertuta bizigabeak dira. Hala ere, negarra edo barrea eragiten duen objektua guztiz bizigabea dela baieztatu ahal da? Liburuekin gure arnasketa arindu ahal da, gure bihotz taupadak bizkortu ahal dira...

Zergatik? Kontatzen diren bizipenetan gure burua islatuta ikusteko aukera dugulako, gure emozioak istorioen pertsonaiek ere esperimentatzen dituztela ohartu ahal garelako, bizitzak planteatzen dizkigun erronkak unibertsalak direla deskubritu ahal dugulako, istorioek ezezagunak diren garaietara edota espazioetara garraiatu ahal gaituztelako, eta, bereziki... bereziki, amestu ahal dugulako.

Amestu ahal dut beste garai betean bizi naizela... Amestu ahal dut nire zaldiak hegan egiten duela, eta lurralde ezkutuetara eramaten nauela... Amestu ahal dut lurralde horretan erregerik ez dagoela... Amestu ahal dut lurraldeko herritarrek errege baten orde, jakintsu bat izendatzen dutela... Eta jakintsua istorio

gehien ezagutzen dituen dela... Amestu ahal dut lurralde horretan tenplu bat dagoela... Eta bertan, gordetzen diren liburuetan, herritar askoren bizipenak biltzen direla... Amestu ahal dut jakintsua lurralde horretako tenpluaren zaintzaile bihurtzen dela...

Zergatik? Liburuak altxorrak biltzen dituzten kutxak direlako. Kutxa bakoitza ezberdina da. Eta zabaltzerakotan, harrapatzen zaitu. Kutxaren barrenak aztertzen hastean, sentimendu ezberdinak sustatzen dituzten berbak, irudiak, istorioak... askatzen dira. Hauei esker, gure bizipenak elikatu eta aberastu ahal ditugu.

Printzeak edota printzesak ez garen arren... itsasontzietan ozeanoak zeharkatzen ez ditugun arren... muntroekin borrokatzen ez dugun arren... irakurketari esker, ezinezkoa dena, posible bilakatu ahal delako... irakurketaren bidez, amestu ahal dugulako... 68. zenbakia honek Irakurzaletasuna gaiari heldu nahi izan dio.

Sartu, irakurri eta gozatu.

Elena Lopez de Arana Prado

Bizitza irakurri

Gotzon Barandiaran

Idazlea

Aurten hamar urte beteko dira *Literaturaz berbetan* de-ritzon irakurle eta literaturazaleen biltokian hilean behin biltzen hasi ginenetik. Lehen hitzordu hartarako Julen Gabiria gonbidatu genuen *Connemara gure bihotzetan* eleberria aurkez ziezagun.

Bai orduan bai egun ere, euskaraz argitaratzen diren liburuen berri izatea da gure helburua. Ez gara irakurri-tako liburuari buruz berba egiteko biltzen, ezpada argitaratu berria den liburuaren berri izateko. Gurearen antzeko irakurle eta literaturazaleen bilgune batzuetan ez da ezinbestekoa liburu argitaratu berria izatea; bai, os-tera, liburu irakurrita bertaratzea.

Salbuespenak salbuespen, euskaraz idatzitako literatura ardatz duten biltokiak irakurleek sustatutakoak dira, irakurtzearen plazerak, irakurtzearen beharrak sus-tatutakoak.

Literatura Eskolak 2004an zabaldu zituen bere ateak. Ez da idazten ikasteko biltokia, ez da idazle izateko ha-zitegia. Literatura Eskola irakurtzen ikasteko biltokia da, Euskal Herriko literatura ezagutzeko biltokia, mun-duko literaturari buruz euskaraz aritzeko biltokia, ira-kurzaleen artean literaturaz berba egiteko gunea.

Literatura Eskolara hurreratzen diren asko maisu, maistra, andereño edo irakasle dira. Ez datoz idazle izan gura dutelako. Euskarazko literatura irakatsi behar dutenez, zer irakatsi dezaketan jasotzeko asmoz etortzen dira. Ezer irakatsi aurretik, zer ikasi behar dutelako.

Literaturarekiko zaletasunaren zergatia zientifikoak ikertuko zituzten, menturaz, estatu batu edo banatue-tako unibertsitate arranditsuetakoren bateko dokto-rek. Literaturaren abarora biltzen garenok bizitzarekiko ardurak, jakin-minak, amodioak eta gorrotoak erakart-

Literatura bizitza da. Zerk bizi du pertsona ez bada maitasuna, heriotza, askatasuna, bakardadea, familia, sinesmena, lana, dirua, bakardadea, adiskidetasuna, sexua... eta literaturak jorratzen dituen eguneroko mendeetako galak?

zen gaitu. Literatura bizitza delako, ihes egiten dionean edota hitzez hitz kontaktzen duenean, berdin dio, li-teratura bizitza da. Zerk bizi du pertsona ez bada mai-tasuna, heriotza, askatasuna, bakardadea, familia, si-nesmena, lana, dirua, bakardadea, adiskidetasuna, se-xua... eta literaturak jorratzen dituen eguneroko men-deetako gaiak?


Euskarazko literatura normalizatze bidean dugun gure hizkuntza lantzeko tresna aparta da. Baina ez da hizkuntzalaritzarako aitzakia, bizitza ulertzen la-guntzeko makuluetako bat baino. Euskarazko lite-raturaren bitartez Euskal Herriaren historia, politi-ka, ekonomia eta jendartea errazago uler ditzake-gu. Kanta bihurtutako poema batzuek diktadurape-an bizitako belaunaldi askoren askatasun gosea beste ezerk baino hobeto jaso zituzten. Euskaldu-non imaginarioaren zutabeetako bi literatura eta musika dira.

Pertsona guztiok dugu geure liburua zain, non dagoen jakitea da afera. Bilaketa lan horretan auzolanean aritu beharko genuke idazle, argitaletxe, literaturaren inguruko orotariko elkarte eta hezkuntzako eragileek.

GARATU, IRALE eta antzeko formazio zerbitzuetan literatura maite dugunon laguntza jaso beharko zenukete literatura irakatsi behar duzenok, bizi gaituen hori, literatura, beste inork baino maitasun handiagoz partekatuko genukeelako zuekin. Badago irakatsi behar duenarekin maiteminduta dagoena baino irakasle horberik?

Pertsona guztiok dugu geure liburua zain, non dagoen jakitea da afera. Bilaketa lan horretan auzolanean aritu beharko genuke idazle, argitaletxe, literaturaren inguruko orotariko elkarte eta hezkuntzako eragileek

Bibliothèque Lucioles (Yaoundé-Camerún)



Huheziko 3. mailako ikasle batzuen testigantza, irakurzaletasunari buruz

Pello Añorga

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea

Sarrera

Aurtengo ikasturtean lantzen hasi naizenean bibliotekaren gaia -HUHEZIKo 3. mailakoekin, "Haur Literatura" ikasgaiaren barrua-, eta bereziki nolakoa izan zen euren lehen harremana liburuekin, nolako bizipenak zituzten, eta abar, konturatu naiz oso gauza interesgarriak dituztela adierazteko. Hain interesgarriak non haien adierazpen batzuk *Jakingarriak*en ale honetan jasotzea pentsatu baitut.

Uste dut zer ikasi franko dugula haien testigantza entzunez gero. Dena den, hemen, noski, ezinbestez, iritzi bakan batzuk baino ez ditut agertuko (luze joko luke bestela-eta), baina nahikoak haien bizipenetan oinarrituta ondorio franko ateratzeko. Batzuk dira gozoak eta besteak (asko) garratzak; batzuk etsigarriak, baina besteak gozagarriak.

Bizipen gozoak

Bizipen hauetan azpimarratzen dute gurasoen papera zein garrantzitsua izan den, irakasleena beste; liburu egokiak eskuratzea, ipuinak entzutea, liburuak oparitzea, norberak liburuak aukeratzeko askatasuna izatea, protagonista sentitzea, bibliotekara joatea...

"Txikitan liburu asko neuzkan. Oso politak ziren, hiru dimentsiotakoak eta kolorez eta marrazkiz beterik zeuden. Gehienetan, liburuak ukitu eta marrazkiak behatzen geratzen nintzen. Askotan usaindu ere egiten nituen, egia esan, gaur egun egiten jarraitzen dudan

zerbait da." (Julene Etxedona)

"Oraindik oroitzen naiz, zenbat gustatzen zitzaizkidan koloreak eta marrazkiak zituzten liburuak. Oraindik oroitzen naiz zein gustuko nituen ehundura desberdinak zituzten liburuak. Oraindik oroitzen naiz zenbat maitatzen nituen ipuinetako pertsonaiak (eskuekin mugituz) mugitzen ziren liburuak. Dena zen kolore, dena zen marrazki, harik eta hitzek liburuetan beren tokia hartu zutenera arte. Hizki horiek hasiera batean handiak ziren eta beraien artean elkartuta agertzen ziren. Gerora hizkien tamaina txikitu eta banatu egin ziren. Bukaeran jada ez zen ez marrazki ez kolorerik agertzen, dena zen hitza." (Maidier Retegi)

"Gogoan dut txikitan nola usaintzen nituen liburuak, baita nola dastatzen nituen ere. Etxean hainbat liburu nituen eta mota guztietakoak ziren. Batzuk hitzez beteriko liburuak ziren, beste batzuek marrazki gutxi batzuk ere bazituzten, baina niri gehien gustatzen zitzaizkidanak hiru dimentsioko liburuak ziren. Lehen aldiz horrelako liburu bat zabaldu eta bertatik irteten zen objektuak aurpegian laztan egin zidanean, inoiz ikusirik libururik zoragarrienak zirela pentsatu nuen. Eta nire gogokoenak izatera pasatu ziren. Eskolara joaten nintzenean, jarraian liburu horietako bat hartu eta ukitu eta ikusi ondoren, irakasleari hura kontatzeko eskatzen nion. Haiek bai liburuekin pasatako momentu ederrak!"

(Meritxel Etxagibel)

"Liburuekin izan nuen lehenengo harremana noiz izan zen esatea zaila egiten zait; izan ere, txiki-txiki-

tatik izan ditut liburuak etxean. Ama *Circulo de Lectores*-eko eroslea zen eta, beraz, etxean liburu dazente genituen. Amak bertako liburu batzuk erosten zizkidala gogoratzen dut, baina gehienetan marrazkiak begiratzen ibiltzen nintzen.” (Ane Urroz)

“Txikitatik liburuekin izan dudun harremana ona eta atsegina izan da. Ikastolan sei urterekin irakurtzen ikasi bezain laster, etxean gurasoekin irakurtzeko ohitura hartu nuen. Egutero, amak ipuin baten hasiera kontatzen zidan eta nik bukaera asmatzen nion. Egutero irrikan egoten nintzen momentu hori iristeko. Nire ustez, ohitura honen ondorioa da gaur, egutero irakurri ez arren, nire gelako mesanotxean beti liburu bat egotea.” (Garazi Oregi)

“Betidanik, etxean, ama izan dut irakurle amorratua. Eta bera izan da irakurzaletasuna transmititu didana. Gogoa dut gauero-gauero ama ohera sartzeko irrikaz zegoela, bere liburu preziatua hartu eta istorio ezberdinetan murgiltzeko nola egoten zen prest. Eta niri horrela, berrari begiratzerakoan irakurtzen aritzen zen bitartean, ba, irakurtzeko gogoia etorri zitzaidan... irakurtzeko gogoia sen-

Etxean hainbat liburu nituen eta mota guztietakoak ziren. Batzuk hitzez beteriko liburuak ziren, beste batzuek marrazki gutxi batzuk ere bazituzten, baina niri gehien gustatzen zitzaizkidanak hiru dimentsioko liburuak ziren. Lehen aldiz horrelako liburu bat zabaldu eta bertatik irteten zen objektuak aurpegian laztan egin zidanean, inoiz ikusiriko libururik zoragarrienak zirela pentsatu nuen



Huheziko 3. mailako ikasleak (2010)

Etxean gurasoekin irakurtzeko ohitura hartu nuen.

Egunero, amak ipuin baten hasiera kontatzen zidan eta nik bukaera asmatzen nion. Egunero irrikan egoten nintzen momentu hori iristeko

titu nuen.“ (Irati Urien)

“Sei urte betetzerakoan, nire izebak, berak sorturiko liburu bat oparitu zidala gogoratzen dut. Bertako protagonistak, ni eta nire lagun-minak ginen. Istorio hartan, nire lagunak eta ni kometarekin jolastera joan eta abentura imaginario batean murgiltzen ginen. Amak maiz kontatu ohi zidan ipuin hura, gogoko bainuen.” (Sheila Etxebeste)

“Oraindik xarma goxo batekin gogoratzen ditut goxo-goxo izara tartean lo hartu aurretik aitak kontatzen zizkidan ipuin haiek. Begiak itxi eta aitaren ahotik entzundako ipuin hura neure egiten nuen lo nengoen bitartean. Gogoratzen dut, era berean, eskolatik liburu bat eramaten genuela etxera, ostiralero, altxorra bailitzan, aste-bukaeran edo astean zehar irakurtzeko. Egia esan, ez naiz gogoratzen zenbat liburu zeuden eskolan, baina badakit derri-gorrezko bigarren hezkuntza arte beti nire esku egon zela liburuak aukeratzea, eta gustura egiten nuela bai liburuaren hautaketa eta baita ondoren irakurketa ere. Are gehiago, desiratzen egoten nintzen urtero Durangoko azoka noiz iritsiko liburuak erosteko. Gainera, urte batzuetan jarraian, Joxe Antonio Ormazabalen liburu berriaren bila joaten nintzen itsumustuan. Ez dakit nola sortu zen urtero Ormazabalen liburuarekin jartzen nuen zita, baina badakit oso zorionsua nintzela liburuak erosi eta irakurtzen nuen bitartean. Horregatik, gaur egun ere, gustuko dut azoka bera, eta bertako liburuak zein diskoak begiratzeko eta erosteko. Aukera zabala aurkitzen da bertan, eta beti edo gehienetan behintzat aurkitzen ditut gustuko liburuak eta diskoak.” (Ainhoa Arrizubieta)

“Nahiz eta oso urrun izan, oso gogoan ditut haurra nintzeneko hainbat ipuin: *Barbantxo*, *Patxi Errementaria*, *Pernando Amezketarra*, *TEOren* hainbat ipuin... Guztiekiko bizipen onak izan ditut, baina batez ere Fernando Amezketarrarekin gelditzen naiz. Fernando Amezketarra

raren ipuinak oso gertutik bizi izan ditut, batez ere amaren familian bertsolaritza oso barneratua baitago. Hori horrela izanda, baserrian biltzen ginenean edo familiako edozein bazkari-afaritan beti izaten zen Pernandoren kontakizunen bat. Eta eskolan horren inguruan irakasleak pasadizoren bat kontatzen zuenean edo bere liburuaren bat irakurtzeko genuenean, nire familiarekin lotzen nuen liburu hura, eta irrika biziz irakurtzen nuen.” (Ander Zabaleta)

“Gurasoek sekulan ipuinik irakurri ez ziguten arren, inoiz ez dira falta izan ahoz aho kontatzen diren ipuin eta istorioak gure etxean. Aita, hamazazpi bat urte arte, artzaina izandakoa da, eta egunero-egunero kontatzen zizgun berari aitak kontatutako istorio edo ipuinen bat, edo beraiei gertatutako pasadizoren bat. Ama ere baserrian jaioa eta bizi izandakoa da, eta ahoz ahoko istorio eta ipuin asko kontatzen zizkigun. Ikaragarri atsegin nituen, eta gaur egun ere atsegin ditut gisa horretako istorioak; oraindik ere, tarteka, oso gustura egoten naiz aitak kontatzen dizkigun pasadizoak entzuten. Gainera, jakin-min handiko neska naiz eta istorioen nondik norako guztiak ezagutzea gustatzen zait. Bestalde, txikitan, herriko liburutegira joateko ohitura nuen; anaia eta biok joaten ginen. Asko gustatzen zitzaidan liburuak ikustea, batez ere marrakzi handi eta erakargarriak zituztenak. Liburuak hartu eta nik asmatzen nuen nire istorio propioa. Orduak ematen nituen liburu artean, harik eta liburutegia ixteko ordua etorri eta anaia eta biok etxera joaten ginen arte.” (Agurtzane Mugika)

“Ikastolan hasi nintzen irakurtzen eta gogoan daukat aitonan amonek oparitu zidaten liburu bat. Liburu horren protagonista nagusia ni nintzen eta horrek liburuak irakurtzeko grina sortu zidan.” (Ainhoa Osinalde)

“Nire esperientzia liburuarekin txiki-txikia nintzela hasi zen. Alde batetik, gogoratzen dut, gauetan oheratu baino lehenago, logelako apaletatik liburu bat aukeratzen nuela eta ohean sartu bezain laster, aita edo ama alboan esertzen ziren irakurtzera. Niretzat, lo hartu baino lehenago lasaitzeko modua zen. Gurasoentzat, berriz, egun guztia alde batetik bestera ibili eta gero, nirekin egoteko momentu atsegina zen. Beste alde batetik, ama askotan ikusten nuen irakurtzen eta pentsatzen dut horrek ere literatura mundura hurbildu ninduela.” (Laura de Cos)

“Liburuarekin nire lehenengo bizipenak txikitan hasi ziren. Etxean beti egon dira liburu asko eta betidanik ikusi dit aita liburuaren bat irakurtzen. Bospasei urterekin aitarekin liburutegira joaten nintzen. Bertan, aitak zein liburu har-



Bibliothèque Lucioles (Yaoundé-Camerún)

tuko zuen etxera eramateko erabakitzen zuen bitartean, ni umeentzako liburuekin entretenitzen nintzen. Dena den, momentu horretan liburuek zeuzkaten marrazkiak bakarrik begiratzen nituen. Denborarekin hori aldatu egin zen eta liburutegiko txartela egin zidaten bertako liburuak etxera eraman ahal izateko. Beraz, momentu horretatik aurrera, liburutegira joaten nintzenean, bi liburu hartzen nituen etxera eramateko eta normalean aita irakurtzen jartzen zenean etxean, ni bere ondoan jartzen nintzen irakurtzeko.” (Lorena Moreno)

Bizipen garratzak

Bizipen garratzetan, berriz, guztien gainetik, eskolaren papera agertzen da: paper tamalgarria, liburuak maitatzen baino gorrotatzen irakatsi zielako. Hona salatzen dituzten hainbat jarrera: liburuak aukeratzeko askatasunik ez izatea, liburuak irakurtzerakoan denbora neurtu beha-

rra, azterketak egitea, biblioteca eskasa izatea... eta, batetik bat, irakurtzera behartzea. Horregatik, gaur egun, askok gorrotoa omen diete liburuei, eta ez omen dira batera kitzikatuak sentitzen liburuak irakurtzera.

Hona testigantza batzuk:

“Hala ere, nahiz eta nire lehen harremanak oso onak izan liburuekin, lehen hezkuntzara iritsi nintzen eta liburuak aspergarriak egiten hasi zitzaizkidan. Ez ziren nire gustuko liburuak. Batuketak eta kenketak zeuden bertan, eta niri asko kostatzen zitzaidan hori burutzea. Gainera, astero liburu bat irakurri behar nuen, baina niri ez zitzaidan gustatzen irakasleak bidaltzen zizkidan liburuak irakurtzea. Batzuk bai, noski, baina gehienak, ez. Nire ikaskideek, horrez gain, liburuak gorrotatzen zituzten eta jarrerak inkontzienteki kutsatu egiten dira lagunaren artean. Orduan hasi nintzen, nahigabe, liburuekiko jarrera negatibo bat

Bibliothèque Lucioles (Yaoundé-Camerún)



pizten nire barnean. Etxean ere, egia esan, gurasoek ez zuten asko irakurtzen, eta horrek imajinatzen dut nigan eragina izango zuela.” (Julene Etxedona)

“Nik liburuei nazka diet. Horren errua ez dakit nork duen, baina inoiz gustatu ez zaizkidan sentsazioa dut. Gogoan dut, txikitan (irakurtzen ikasi nuenean) larunbat arratsaldetan, lagunengana jaitsi aurretik nola amak astero-astero liburu berdina irakurtzera derrigortzen zidan. Izan ere, andereñoak irakurketa praktikatzea beharrezkoa zela aipatu omen zion. Bestalde, aipatu behar dut niretzat golpe izugarria izaten zela liburuak irakurri eta haren azterketa ez gainditzea.” (Nerea Arrieta)

“Hala ere, eskolan Lehen Hezkuntzako azken etapan hain zuzen ere, zaletasun hori itzaltzen hasi zen. Eskolan liburuak irakurtzen hasi ginen, bakarka edo ahots goran gelako kide guztien aurrean. Batzuetan, irakasleak

irakurri behar genuen liburua zein zen esaten zuen eta ez genuen besterik irakurtzeko, inongo aukerarik eman gabe. Besteetan, eskolako liburutegira joaten ginen eta nahi genuena hartzen genuen. Hala ere, derrigortuta sentitzen nintzen eta horrek nolabaiteko gorrotoa sortu zidan liburuekiko. Mailaz igo ahala, irakasleak esandakoa irakurtzeaz gain, zein eperako irakurri behar genuen ere zehazten zuen. Ondoren, irakurri genuela ziurtatzeko, galdera batzuei erantzun edo azterketa egiten genuen. Horren guztiaren ondorioz, bakarrik eskolan bidaltzen zizkiguten liburuak irakurtzen nituen eta asko kostatzen zitzaidan. Azken finean, derrigortuta sentitzeak ez zidan liburuaz gozatzen uzten. (Laura de Cos)

“Etap horretan nire adinerako liburu asko irakurri nituen, baina gauzak aldatzen hasi ziren eskolan derrigorrezko liburuak irakurri behar nituenean. Normalean, bidaltzen zizkidaten liburuak ez ziren nire gustukoak eta asko kos-

tatzen zitzaidan liburu bat bukatzea. Honen ondorioz, nire erlazioa liburuekin asko aldatu zen. Liburutegia ez nuen asko bisitatzen, beti eskolako libururen bat nuelako etxean irakurtzeko.” (Lorena Moreno)

“Ikastolan, urteak pasaz, etxean transmititu zidaten irakurzaletasan hura desagertzen joan zen. Zer dela eta? Ez nuen ikusten etxean ikusten nuen berdina, ikastolan liburu zaharrak, ia denborarik gabe irakasleak esaneko liburua hartu eta azterketa egunerako irakurri beharra, besterik ez zegoen ikastolan. Ez nuen inor izan motibatu ninduenik bertan, eta liburutegia... zer esanik ez. Liburutegia edo bideo-gela, batzar-gela, errefortzuz-gela... En fin, ez zuela liburutegi usainik ez itxurarik.” (Irati Urien)

“Hala ere, denborarekin liburutegira joateari utzi genion. Jende asko joaten zen etxeko lanak egitera, jolastera... eta gainera, lekuz aldatu zuten. Hasieran, etxetik metro batzuetara genuen liburutegia urrutiago dagoen auzo batera pasa baitzuten berrikuntza lanak zirela-eta. Faktore desberdinak zirela medio, liburutegira joateari utzi eta liburu gutxiago hartzen genituen eta pixkanaka-pixkanaka irakurtzeari utzi genion.” (Agurtzane Mugika)

“Urteak aurrera joan ahala, liburuekiko nire bizipenak edo beraiekiko nuen erlazioa hozten joan zen. Oso gogoan ditut oraindik batxilergoan derrigorturik irakurri behar izan nituen hainbat liburu; batez ere erdal literaturakoak: *El Quijote*, *San Manuel Bueno Mártir*, *Cinco Horas con Mario*, *Lazarillo de Tormes*, etab.” (Ander Zabaleta)

“Handiagoa egin nintzen, beraz, Lehen Hezkuntzara joan nintzen. Eskola honetan jada ez zeuden nire gustuko liburuak. Etxean zeuden hitzez eta marrakí gutxi batzuek osaturiko liburuak bezalakoak zeuden orain eskolan. Hori gutxi balitz, irakasleek haiek aukeraturiko liburuak irakurtzera behartzen gintuzten. Ez nuen gogoko haiek bidalitako ia liburu bat ere. Izan ere, ea irakurri ote genuen jakiteko, azterketa egiten ziguten. Beraz, irakurtzen baino gehiago, liburu aurrean, azterketan pentsatzen egoten nintzen eta urduritasunak ez zidan liburuarekin gozatzen uzten.” (Meritzel Etxagibel)

“Liburuak irakurtzen hasi nintzeneko oroitzapena ikastolan kokatu dezaket non irakurketa liburu bat genuen hainbat istoriorekin. Garai hartan, irakurtzen hasi behar genuenez, irakasleak ikasgelan zeuden liburu batzuk irakurtzera “behartzen” gintuen. Paretan kartoi mehe handi bat jarri eta bertan haur bakoitzak irakurtzen zuen liburuaren izenaren ondoan ixa bat egiten zuen, liburu guz-

Txikitan, herriko liburutegira joateko ohitura nuen; anaia eta blok joaten ginen. Asko gustatzen zitzaidan liburuak ikustea, batez ere marrakí handi eta erakargarriak zituztenak. Liburuak hartu eta nik asmatzen nuen nire istorio propioa. Orduak ematen nituen liburu artean

tiak irakurri arte. Nire kasuan, liburuak irakurtzeko nahiko alferra nintzen eta, ondorioz, nire laukitxoetan ia ez zegoen ixarik eta irakasleak zein gaizki nindoan errepikatzen zidan behin eta berriz. Agian, orduan hasi nintzen liburuak gorrotatzen. Ikastolan eta batxilergoa bukatu arte irakurri nituen liburu guztiak irakasleak eskatuta izan ziren. Beraz, derrigortuak ginen horiek irakurtzera ikasgaia gainditu nahi bagenuen, eta, sarritan, inolako gogorik gabe irakurtzen nituen. Hala ere, egon dira irakasleak bidali eta gustura irakurri ditudan liburu batzuk, hala nola, *Las lagrimas de Shiva eta El Capitán Alariste*. Batxilergoan izan ezik, beste urte guztietan irakurtzeko erabiltzen zen sistema bera izaten zen, ikastolan gelako beste haur guztiekin batera irakurtzen genituen ikasle bakoitzak lerro batzuk irakurriz. Amaierarako aspertu egiten ginen eta istorioaren haria galtzen genuen.” (Ane Urroz)

“Garai honetako pasarteak ezagunagoak egiten zaizkit. Aldi honetan, ikastolan kronometro batekin egiten zizkiguten irakurketa azterketak. Irakasleak, mahaiak banatu eta ikaskide guztiei orrialde bateko ipuin bat ematen zigun. Ikaskide guztien ipuina berdina zen. Irakasleak orain esaten zuenean denok isildu, kronometroa martxan jarri eta bakoitzak bere golgorako ipuina irakurtzen genuen. Hura irakurri ondoren irakaslearengana gerturatzen ginen eta hark kronometroan jartzen zuen zenbakia paper batean idazten zuen. Paper zuri hartan, zenbakia idatzi ondoren, orri batean ipuinaren inguruko galdera pilari erantzuteko esaten zigun. Klasea bukatzeko, hamar minutu geratzen zirenean, bakoitzak bere erantzunak on-

doko ikaskideari pasatu eta haien zuzenketa egiten has-
ten ginen. Ariketa haren helburua ahalik eta bizkorren
nork irakurtzen zuen eta ulermen gaitasun handiagoa
nork zuen ikustea zen. Baina uste dut ekintza haiek guz-
tiek mesede egin beharrean, kalte egin dutela. Izan ere,
gaur egun liburuekin dudak harremanaren oinarrietako
bat dela uste dut. Oro har, ipuina irakurri behar zen mo-
mentuan oso urduri jartzen nintzen. Eta denboraren aur-
ka joate horrek beldurra ematen zidan. Momentu hartan,
behin eta berriz galdetzen nion neure buruari: gai izango
ote naiz azkena ez izaten? ". (Maidar Retegi)

Bizipen gozagarriak

Halere, bizipen etsigarriez gain, badira bizipen gozaga-
rriak ere. Eta hauetan lagunen eragina nabarmena da;
eskola batzuen jarrera positiboa ere azpimarragarria da,
gurasoena, liburutegiena, eta baita liburu batzuen era-
ginkortasuna ere.

Hona testigantza batzuk:

"Orain dela gutxi, berriz, irakurketarekiko zaletasuna
piztu zait. Pertsona batek gomendatuta liburu bat ira-
kurtzen hasi nintzen. Pentsatzen nuen asko kostatuko
zitzaidala eta ez zela nire gustukoa izango, baina ez
zen horrela izan. Oso gustura sentitu nintzen irakurt-
zerakoan. Liburua interesgarria iruditu zitzaidan eta
zenbat eta gehiago irakurri, jarraitzeko gogo handiagoa
nuen. Geroztik, nire zaletasun berria bihurtu da. Ingu-
ruan dudak pertsona batek eleberri ugari ditu eta berak
gomendatuta edo nik aukeratuta, asko irakurtzeko au-
kera izaten dut. Atsegin dut liburu bat eskuetan hartu
eta bertan kontatzen den istorioan murgiltzea. Irudime-
na martxan jartzen da eta hitzez baliatuz pelikula bat
sortzen duzu buruan. Momentu horretan buruan ditu-
dan beste gauzak alde batera uzten ditut eta lasai sen-
titzen naiz. Liburu bat amaitzen dudanean, beste bat
hasteko gogoia edukitzen dut; horregatik, liburuekiko
zaletasuna piztu zaidala uste dut." (Laura de Cos)

"Ikastolako esperientziak, irakurtzera bultzatu beharre-
an, guztiz kontrakoa egiten du nire ustez. Hau da, ira-
kurtzera bultzatu eta irakurtzearen alde onak irakatsi
beharrean, obligazio bat izango balitz bezala erakusten
ziguten. Denok dakigu inposaketak inori ez zaizkigula
askorik gustatzen. Baina esan beharra dut orain dela
urte pare bat berriz irakurtzeari gustua hartu niola, a ze
kasualitatea, hori justu ikastolatik irtetea gertatu zen!"
(Garazi Oregi)

"Haurra nintzeneko irakurketa eta liburuen inguruko
oroitzapen askorik ez dut; beraz, amarengana jo behar
izan nuen informazio bila. Esan zidanaren arabera, txi-
kitan ez omen nuen bat ere irakurzaletasunik, baina
zortzi edo hamar urte inguru bete nituenean liburueki-
ko bat-bateko interesa piztu zitzaidala aipatu zidan; eta
ez bereziki berak edo eskolak horretara bultzatu nin-
dutelako, bat-batekoa izan omen zen. Garai horretan
etxez aldatu berri nintzen eta auzoko liburutegira sarri
joaten nintzen eta orduak eta orduak ematen nituen
bertan, batez ere udan." (Lide Mirari García)

"Batxilergoko zikloak asko markatu ninduen eta batez
ere liburuekiko gorrotoa sortzeko nigan. Ikuspegi ho-
rrekin hasi nuen Euskal Filologiako lizentziatura Gas-
teizen eta egia esan, liburuekiko harremanak estutze-
ko balio izan zidan lizentziatura horrek iraun zuten bost
urteek. Euskal Herriko kultura eta hizkuntzaren ingu-
ruko liburuak izateak, eragin handia izan zuen bizipen
positiboa izaterako orduan, eta, nahiz eta liburuak de-
rri gorrez irakurri behar izan nituen, eta batzuk oso eus-
kara arkaikoan egon, oso gustura irakurri nituela (eta
batzuetan oraindik irakurtzen ditut) esan beharra da-
go: Etxepare, Axular, Oihenart, Gabriel Aresti, Bernar-
do Atxaga, Joannes Etxeberri, Etxahun... (Ander Za-
baleta)

"Aipatu beharra daukat nire gurasoak ez direla inoiz oso
irakurzaleak izan, nahiz eta etxean liburu ugari eduki;
baina, bai nire bi lagun eta nire ahizpa. Nire ustez, bi
lagun horiei eta ahizpari esker dut gaur egun irakurza-
letasuna. DBHn, ikastetxean irakurtzera behartutako li-
buruak ez nituen gustuko, baina bai ahizpak eta lagu-
nek gomendaturikoak. Beraz, ikastetxeko liburuak al-
de batera utzi, eta eurak utzitako liburuak irakurtzen ha-
si nintzen. Ondorioz, onartu beharra daukat gaur egun
beraiei esker murgiltzen naizela istorio magiko horie-
tan." (Scheila Etxebeste)

"Hala eta guztiz ere, hamabost urteekin liburu bat ira-
kurri nuen, nire borondatez. Inork ez ninduen behartu
liburu hori irakurtzera. Liburua hartu eta beste mundu
batera abiatu nintzen. Liburua La sombra del viento
zen. Liburu horretan liburuak maitasunez tratatzen zi-
tuzten eta liburuekiko "magia" oso ongi islatzen zen ber-
tan eta ni hunkituta utzi ninduen liburu hark. Oso ongi
sentitzen nintzen liburua irakurtzen eta asko gustatu zit-
zaidan sentsazio hura. Liluratuta geratu nintzen, eta
konturatu nintzen liburu batek zenbat eman dezakeen.
Ni momentu horretan denboraldi txarra pasatzen ari
nintzen eta esan dezaket liburuak asko lagundu zidala

gainditzen.” (Julene Etxedona)

“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hainbat libururen artean aukeratzeko ematen ziguten; beraz, gogo gehiagorekin irakurtzen nuen. Gainera, ez zegoen hura ebaluatuko zuen azterketarik. Irakasleak binaka jartzen gintuen eta batak besteari irakurritakoa kontatu behar genion. Gogoko nuen besteek irakurritako istorioak entzutea, eta ez zegoen urduritasunik. Izan ere, aukeratzeko genuenez, guk nahi genuen liburua irakurtzen genuen. Hala ere, gaur egun ez dut irakurtzeko zaletasunik. Dena den, izenburu batek arreta ematen badit edo eta lagun batek libururen bat gomendatzen badit, denbora dudanean irakurri egiten dut.” (Meritxel Etxagibel)

“Etxean beti bultzatu izan naute liburuak irakurtzera, baina orain dela lau urte arte ez dut inongo zaletasunik izan horretarako. Horren arrazoia da beti, eskolan, behartutako liburuak eta denbora zehaztuan irakurri behar izan ditudala eta horrek estresatu besterik ez ninduen egiten. Aldiz, orain dela lau urte auto-istripu baten ondorioz urtebete eman behar izan nuen gauza handirik egin gabe eta denbora dezente nuen libre, amak bultzatuta irakurtzen hasi nintzen. Hura asko gustatu eta pixkanaka liburuei zaletasuna hartzen joan nintzen, gainera urte horretan, gutxi gora-behera, dozena bat liburu irakurri nituen. Orduetik aurrera, denbora dudan bakoitzean, gehienbat oporretan, liburuak irakurtzeko ohitura daukat.” (Betzaida Urtaza)

“Oroitzapenekin jarraituz, badago oso ondo gogoratzen dudan zerbait; oroitzapen izugarri ona da: jada, ez nengoen haurtzaroan, zortzi edo hamar urte nituen eta naturari buruzko liburu bati begirada bat ematea asko gustatzen zitzaidan. Liburu hura entziklopedia bateko tomo bat zen, eta bertan hainbat animalia argazkiak agertzen ziren. Besteak beste: Afrika sabanako animaliak, Indiakoak edo Ipar polokoak... Liburu hura zabaltzen nuen bakoitzean, animalia horiek ikusiko nituela egiten nuen amets. Hura ikustean oso gustura eta lasai sentitzen nintzen eta denbora asko pasatzen nuen berarekin esku tartean.” (Maria Rosa Montoia)

Azken testigantzak: ikasle batzuek liburuekiko duten harreman grinatsua

“Gaur egun, beti daukat liburu bat eskuen artean. Erdarazko nobelak irakurtzen ditut gehienetan. Baina, egia esan, amorru handia ematen dit irakurtzeko denbora gehiago ez edukitzeak. Liburuek ongi sentiarazten nauten eta denbora aprobetxatzen dudala sentitzen dut.

Atsegin dut liburu bat eskuetan hartu eta bertan kontatzen den istorioan murgiltzea. Irudimena martxan jartzen da eta hitzez balliatuz pelikula bat sortzen duzu buruan. Momentu horretan buruan ditudan beste gauza k alde batera uzten ditut eta lasai sentitzen naiz

Gauza berriak ikasten ditut liburuekin: beste kultura batzuk, pertsonak... hobeto ulertzen laguntzen didate.” (Julene Etxedona)

“Orain ordea, denbora gehiago eduki nahiko nuke irakurtzeko, liburutegira edo denda batera joan, nahi dudan liburua aukeratu, nahi dudan lekuan irakurtzeko eta nahi dudan beste denbora izan liburu horrekin gozatzeko: protagonistak imajinatu, paisaia asmatu... Azken finean, denbora faltan aurkitzen naiz, hain gustuko ditudan gauza horiek egiteko eta gozatzeko. Baina askotan ezinezkoa dugula iruditzen zait, horregatik asko ezagutzen nauen lagun batengana jotzen dut askotan, berak badakielako zer nolako liburuak gustatzen zaizkidan eta ia beti gomendatzen didan liburu hori plazerez irakurtzen dut, liburutik begirik altxa ezinik. Horrek deskonektatzen bainau egunero kotasunetik eta irakurtzen nagoen momentu hori berezia bihurtzen. Betidanik pentsatu izan dut gustuko ditudan liburuak arretaz irakurtzea bezalakorik ez dagoela. Liburuak eta irakurmena, beraz, plazer hutsa dira niretzat. Askokostatu arren gustuko liburua aurkitzea, behin aurkituta, bertan murgildu egiten naiz eta liburuen barne mundura sartzen naiz, protagonista antzera...” (Ainhoa Arrizubieta)

“Irakurtzea, nire ustez, deskonektatzeko modu bat da, mundu paralelo baten murgiltzeko aukera ematen dizu eta gure barnean mila sentimendu kontrajarri, desberdin... sortzeko gaitasuna daukan zerbait da. Bai, gaur egun irakurtzen dut.” (Garazi Oregi)

Testigantza hauek irakurrita, uste dut hainbat ondorio aterra daitezkeela. Baina, ez naiz sartuko horretan. Irakurle-

Donostiako haur liburutegia eta haur liburuaren dokumentazio-gunea

Elena Oregi

Donostiako Haur Liburutegi Nagusi eta bere Haur Liburuaren Dokumentazio-guneko arduraduna

Haur liburuaz erabateko eskaintza

Liburutegi Nagusiko Haur Saila eta horren Haur Liburuaren Dokumentazio-gunea gipuzkoar hiriburuko Donostia Kultura erakundeko Udal Liburutegien Sarekoak dira. Zerbitzu horren etapa berriari 1994an ekin zitzaion, egun Fermin Calbeton kalean duen egoitzara pasatuz zenean, hastapeneko fondoak eta izaera Liburutegi oraindik Konstituzio Plazan zegoela moldatu baziren ere. Hobeki egokituriko eta tamaina handiagoko (660 m²) espazio batera lekualdatzeak eta zerbitzua langile gehiagoz hornitzeak Haurtxoteka eta Dokumentazio-gunea eskaintzeko aukera eman zuten.

Fermín Calbeton kaleko bibliotekak, haur liburua gai bakarra duelarik, baditu hiru alorri berriak emaniko espazioak, hots, haur liburuaren fondo modernoa, sarrera librekoa, fondo gordea eta haur literatura eta liburutegi gainerako Dokumentazio-gunea. Hiru fondo horiek zentro bakar batean biltzea eta erabiltzaile gaztetxo eta helduak espazio berean elkarrekin izatea funtsezkoa da kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko.

Ikerlari batek haur literaturako autore jakin baten inguruan eginiko azterketak jorratu, bere egungo obrak sarrera libreko Haur Aretoan kontsultatu eta, nahi izanez gero, autorearen lehenagoko edizioak eskatu ahal izango ditu, horiek ere fondo gordean eskura egongo baitira. Gurasoek edo irakasleek liburutegian barrena hurrekin osteratzea eginez, haur liburuak ikusi eta hartu ahal izango dute, baita informazioa jaso irakurtzeko zaletasuna sortzeaz, hautaturiko liburuez, liburutegiez eta besteaz.

Fondo zabala eta erabiltzailearen eskakizunen arabera katalogatuta

Liburutegiaren fondoa hainbat euskarritan osaturiko hogeita hamar mila dokumentu osatzen dute; horien artean, haurrentzako fondo modernoa, Dokumentazio-guneko dokumentuak, fondo gordea eta Asun Balzola Dohaintza. Euskarazko funtsa bereziki ondo osatuta dago, hizkuntza honetan haurrentzat argitaratu diren ia titulu guztiak aurki daitezkeelako liburutegian.

Euskaraz eta gaztelerazko funtsak ugariak izaki, badira obrak beste hainbat hizkuntzatan ere: katalanez, galegoz, ingelesez, frantsesez, alemanez, italieraz, portugesez, errumanieraz, txineraz eta arabieraz, alegia. Horiek, liburutegiak kulturarteko zerbitzu izateko duen asmoa agerian uzten dute.

Fondo gordea, berriz, XIX. Mende bukaeratik egun arteko liburuek osatzen dute. Horien artean, XX. mendearen hasierako euskarazko haur liburuaren estreinako edizioak, edizio berriagoak izanik ere dagoeneko agortuak direnak, formatuagatik delikatu gertatzen diren obrak, autoreak sinatutako aleak, etab. Fondoak, adituez gain, pertsona nostalgikoak ere erakartzen ditu, txikitan irakurri zituzten liburuak bilatzera baitatoz.

Asun Balzola Dohaintza 2007 urtean jaso zen haur Liburuaren Dokumentazio-gunean. Funts hori osatzen dute, batetik, mila eta berrehun bat ilustrazio originalek, beren proba, zirriborro, maketa eta guzti; bestetik, dokumentazio profesional eta pertsonalak eta, hirugarrenik, autorearen liburutegi pertsonalaren parte batek,

berak eta beste autore zenbaitek eginiko liburuez osatutakoa. Funtsaren azkenengo partea aurtengo apirilean jaso da, ilustratzailearen gaineko liburu bat prestatzeko beharrezkoa baitzuten egileek. Liburua, *El Mundo de Asun Balzola*, SM editorialak aurten plazaratzeko asmoa du. Asun Balzola Dohaintzak ilustratzailearen lana ikertu eta hobeto ezagutu nahi duenarentzat aukera ezin hobea eskaintzen du.

Fondoaren katalogazioaren gehiena Liburutegi Sarearen Unitate Tekniko Nagusian, erabiltzaile gaztetxo eta helduen premien arabera egitea zerbitzuaren klabeetako bat da. Informazioa eskuratzeko, ohikoak diren autore edo titulua bilatuz ez ezik, ilustratzaile eta gaia ere bilatzeko bideak dira, bai ezagutza liburutetan, baita haur literaturan ere, aukera horiek biziki interesgarriak dira ikerlari eta irakaslearentzat, batik bat.

Euskaraz eta gaztelerazko funtsak ugariak izaki, bada dira obrak beste hainbat hizkuntzetan ere: katalanez, galegoz, ingelesez, frantsesez, alemanez, italieraz, portugesez, errumanieraz, txinerak eta arabieraz, alegia. Horiek, liburutegiak kulturarteko zerbitzu izateko duen asmoa agerian uzten dute

Donostiako haur liburutegia. Ordenagailuak. (2010)



Haurtxotekak (0-5 urte arteko haurrentzako irakurketa zerbitzua) 1994an ekin zion bideari eta, horretan, Estatuko lehenetariko bat izan zen. Egun, Donostiako Liburutegi Sarean badira haurtxotekak Okendo, Ernest Lluch eta Casares-Tomasene Kultur Etxeetako liburutegietan, eta denetan helburua bera da: txiki-txikitatik irakurtzeko zaletasuna piztea

Haurtxoteka, txiki-txikitatik irakurtzeko zaletasuna pizteko apustu aitzindaria

Haurtxotekak (0-5 urte arteko haurrentzako irakurketa zerbitzua) 1994an ekin zion bideari eta, horretan, Estatuko lehenetariko bat izan zen. Egun, Donostiako Liburutegi Sarean badira haurtxotekak Okendo, Ernest Lluch eta Casares-Tomasene Kultur Etxeetako liburutegietan, eta denetan helburua bera da: txiki-txikitatik irakurtzeko zaletasuna piztea.

Haurtxoteketan, fondo zaindua eta irakurtzeko gune egoki eta goxoa eskaintzea lehenetsi dira. Horiek ez ezik, gurasoei aretoan zuzenean edo aurretiaz antolatutako mintzaldietan orientazioa ere eskaintzen zaie. Haur liburutegian Haur Liburutegian 1999 urteaz geroztik, haurtzaroan irakurtzeak duen garrantziaz ikastaroak zuzendu izan zaizkie guraso eta hezitzaileei. 2010eko apirilko ikastaroaren aztergaia irakurtzeko motibazioa izan da eta Juan Carlos Alonso psikologoak eman du.

Dokumentazio-gunea, euskal herriko profesionalen zerbitzura

Dokumentazio-guneko aretoan literaturan eta haur liburutegietan espezializatutako fondoak biltzen da. Goian

azaldu bezala, gainerako funtsekin, hots, fondo gordea, haurrentzako fondo modernoa eta Asun Balzola Dohaintzarekin osatzen da Dokumentazio-gunea. Beste fondo horiek euskarri baliotsuak dira dokumentazio espezializatua bilatzen ari den ikertzailearentzat, haur literaturako obrak zuzenean aztertu baititzake. Fondo espezializatua lau bat mila monografia osatzen dute eta, gainera, bertan biltzen dira 38 aldizkari, hemengoak eta atzerrikoak, hala nola Behinola, CLIJ, Educación y Biblioteca, Bookbird, Nous Voulons Lire, etab. eta bertako artikuluetatik hustuketa-lana egiten da. Horiek ez ezik, fondoak baditu dossierrak, irakurketa-gidak, interneteko baliabideen zerrenda aukeratua, etab.

Dokumentazio-eskaintzaren barnean garrantzi handia ematen zaie, zentroak duen interes logikoagatik, euskaraz idatzitako materialei eta euskal haur-literaturari buruzko informazioa ematen dutenei. Interes horretan zenbait autorek beren laguntza eskaintzen dute. Mariasun Landak, adibidez, bere obrari buruzko informazio guztia eskaini du, baita hainbat hizkuntzataraz itzultako bere zenbait lan ere.

Zentroa erabilgarria gerta liteke haur literaturarekin eta haur liburutegiekin zerikusia duten profesionalentzat, ikertzaileentzat zein gaian interesa duten pertsona guztientzat. Profesional eta ikertzaile horien artean, besteak beste, liburuzainak, irakasleak, ikasleak, idazleak, ilustratzaileak edo hezitzaileak daude.

Unibertsitateko ikasleek beren lanak egiteko informazio espezializatua aurki dezakete Dokumentazio-gunean eta liburuzainen laguntza osoa izaten dute edozein dokumentazio bilatzeko orduan. Bilaketa horietako batzuek doktorego-tesiak egiteko balio izan dute eta tesi horiek zentroan kontsulta daitezke.

Dokumentazio-guneak ohiko zerbitzuak ematen ditu, informazioa, irakurketa aretoan, mailegua eta Internet, baita beste zerbitzu berriagoak ere, hala nola ordenagailu eramangarrien aretoko mailegua edota liburu elektronikoen mailegua. Era berean, dokumentu bilaketan sostengu pertsonalizatuaz gainera, liburutegien antolamendurako aholkularitza eta prestakuntza ere eskaintzen ditu.

Nabarmenezkoa da Donostia eta Gipuzkoako eskola liburutegiekiko elkarlana. Harremana Udalaren Hezkuntza Zuzendaritzarekin eginiko itunei esker, alde batetik, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ACEX programaren bidez, bestetik, gauzatu da. Erakunde ho-



Donostiako haur liburutegia. Haurtxoteka (2010)



Donostiako haur liburutegia. Dokumentazio-gunea (2010)

Sustapenari ekin dio Liburutegiak bi bidetatik: erabiltzaileak trebatzeari eta irakurtzen animatzeari dagokionez. Xede horrekin gauzatu diren ekimenetako batzuk goian aipatu dira. Garatzen ari diren jardueren artean, urtetan zehar bizirik iraun dutelako, nabarmen ditzakegu ipuinaren ordua, bisita didaktikoak, liburu erakusketa, irakurketa gidak, berrikuntzen zerrendak, egun seinalatuak (Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, adibidez) ospakizuna, eta hainbat ikastaro.

riek heziketa-ikastaroetan eta mintegietan parte-hartzeko aukera ematen baitie. Heziketaz gain, eskolako liburuzainek beren lanerako behar duten informazio bibliografiko eta laguntza profesional guztia aurkitzen dute zentroan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentuaren eta Donostiako Udalaren artean urtero-urtero sinatzen den hitzarmenak aipamen berezia merezi du, berari esker Dokumentazio-guneak bertako materiala Euskadiko liburutegi publikoen pertsonalaren eskura jartzen du; urtero, Bilbo, Donostia eta Gasteizen ikastaro bat ematen du eta Dokumentazio-gunean aldiro-aldiros jasotzen diren publikazioen aurkibideak jasotzen dituen aldizkaria editatzen du. 2010 urtetik aurrera aldizkaria formatu elektronikoan editatzea aurreikusitako da; bertan jasoko da aholkatzen diren artikuluen batzuen laburpenak.

Euskadiko liburutegi publikoen bibliotekariak informazioa eskatu dezakete edozein bitarteko erabiliz. Era be-

rean, behar bezala jaso ditzakete monografiak, liburutegien arteko maileguaren bidez, edo artikuluen fotokopiak, postaz. Aldizkari espezializatu eta informazioa hobeto zabaltzeko, Dokumentazio-guneak lau hilabetez behin lehen aipaturiko aurkibide-aldizkaria ateratzen du eta hura Euskadiko liburutegi guztietara iristen da.

Urtero eskaintzen diren ikastaroetan, 1996 urtean hasi zirenetik, haur literaturarekin eta liburutegiekin loturiko gaiak jorratu izan dira. 2009ko ikasturteko gaia, "Kulturartekotasuna liburutegian" Maria Gental bibliotekari katalanak eman zuen.

Sustapena: prestakuntza eta animazioa

Sustapenari ekin dio Liburutegiak bi bidetatik: erabiltzaileak trebatzeari eta irakurtzen animatzeari dagokionez. Xede horrekin gauzatu diren ekimenetako batzuk goian aipatu dira. Garatzen ari diren jardueren artean, urtetan zehar bizirik iraun dutelako, nabarmen ditzakegu ipuinaren ordua, bisita didaktikoak, liburu erakusketa, irakurketa gidak, berrikuntzen zerrendak, egun seinalatuak (Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, adibidez) ospakizuna, eta hainbat ikastaro.

Jarduera horiek guztiak erabiltzaileen premietara eta gizartean eta liburutegietan gertaturiko aldaketetara egokituz joan diren arren, hasierako helburuei heldu diete, hots, erabiltzaileak liburutegien erabilera prestatzea eta haurren artean irakurtzeko zaletasuna sustatzea.

Amaiera

Fondoak, espazioak, zerbitzuak, jarduerak... aspektu horiek elkarren osagarriak dira liburuaren erabiltzailearengana hurreratzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko helburuei begira. Donostiako Liburutegien Sarearen iritziak, fondorik gabe, espazio egokirik gabe, zerbitzurik gabe irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak antzuzko izango dira. Berez, iritzi horixe helarazten die Dokumentazio-guneak eskola-liburutegien arduradun diren irakasleei.



Donostiako haur liburutegia. Jarduerak (2010)



Donostiako haur liburutegia. Jarduerak (2010)

Bihotzaren taupadez

Itziar Zubizarreta

Galtzagorri elkarteko kidea

Idazlan hau Bogotako 9º Congreso Nacional De Lecturan irakurri zen ponentziaren laburpen bat da. Edorta Jimenezen itzulpenez, 2009an Galeuscan ere irakurri zen.

Lanaren tituluak berak erakusten digu haren nondik norakoa. Bularra, jaioberriaren aterpea, elikagaia eta hitzaren eta murmurioen lekua. Bularrean, umearen bihotza eta gurasoen bihotzak taupadetan bat eginik. Bihotzaren taupadena izan zen, agian, lan hori sortzeko izan genuen lehenengo intuizioa.

Bularretik Mintzora lana irakurtzeko zaletasuna sustatzeko proiektu jakin bati lotua dator. Proiektua 0 eta 6 urte arteko haurren gurasoei eta irakasleei, multzo biei zuzendua dena, OEPLI- IBBY delakoren euskal adarra den Galtzagorri Elkarteak sustatua da. Proiektuaren izena Juan Kruz Igerabideren saiakera batetik dago hartua. Horretan, aipatu idazleak herri poesiak emozio-hizkeran, hots, sentimenduei, umoreari eta maitasunari loturiko hizkeran duen garrantziaz dihardu. Horra nire abiaburuetako bat, gogoetan hastera naramana, hala guraso gazteei eta irakasleei herri poesia aurkezteko balizko moduez, nola poesia mota hori ikasi eta zabal dadin egitekoaz.

Aipatu laneko olerki, kantu eta ipuinen hautaketa haurren bilakaeraren araberako ordenaren baitan egina da, baita ere hizkuntza eta kultura berreskuratzeko gogoan izan beharreko irizpide zenbaiten arabera. Belau-naldi jakin baten tartean kantuon, jolason eta ipuion erabileraren oroimena galdu egin dela oharturik abiatu nintzen. Bada, irakurzaletasuna sustatzeari buruzko aipatu proiektuaren bidez badugu aukera, bai, XX. mendeko hastapenetako herri folkloreaken bilduma diren hainbat liburutan gordeirik izan den gai horiek guztiak zabaltzeko. Orain dela berrogeita hamar urtetik hona eskueran ditugu.

Kantuotako batzuk hor zehar erabiliak izan dira azken urteotan, egia; hala eta guztiz ere zerbait argitu beharra daukat, zera, gehienetan erritmo arrotzetara egokitu izan direla, eta horrelakoetan hizkuntzaren taupada, berezko intonazioa eta, batik bat, jatorrizko azentuazioa aldrebestuz egin izan direla. Zentzu handirik gabeko modernatu gura baten eraginez herri kantuon pop bertsioak sortu direlarik, bertsiook jatorrizko erritmoa eta txikiengana iristeko bide diren ezaugarri nagusienetako batzuk kenduz gauzatu dira, hots, gogoan hartu gabe zertarako eginak diren. Hizkuntzak beren artean bereizten dituzten fonetika-ezaugarriez dihardut. Materiala gurasoei eta irakasleei buruz zuzendua delarik alderdi honen garrantzia erabatekoa da, horiek, gurasoek, irakasleek, haurrei begira hizkuntza-eredu zuzenak behar baitituzte. Sarri askotan, eta borondate ona ukatu gabe, era honetako kantuak euren jatorrizko funtzio nagusitik aldendurik erabili izan dira, hala euskaraz nola beste edozein hizkuntzatan.

Haur kantu herritarrak kantuon hizkuntzaren ezaugarriari loturik eta, aldi berean, haurren euren premien eta ezagutza bideen mende sortuak dira. Argiago esanda: erritmo binarioak, bere konpas bakoitzaren silaba-definizio eta guzti, errepikapena errazten du eta, era berean, oin errepikatuak hurrengo etortzeko den bokaleari aurre hartzeko bidea iragartzen digu. Bada, ezaugarri edo faktore horiek guztiok errazago bilakarazten dute haurrei proposatu ahal zaien zeingura literatura-egituraz jabetzea. Ildo honetan aipagarriak lirateke melodia bereiztuak, horiek tonurik eta notarik ia batere gabeko salmodia horiei kontrajarri ahal baitzaie.

Bada, pixkanaka-pixkanaka gai honen gakora inguratzen ari gara. Olerki eta kantu hautatuei laguntzeko halako musikazko fondo edo itzal bat ere sortu beharra geneukan, zeren eta bestela etengabeko edozein musika-harirekin ohiturik diren haurrei zaila gerta baitze-

Nahia Astarloa (2010)



Aipatu laneko olerki, kantu eta ipuinen hautaketa haurren bilakaeraren araberrako ordenaren baitan egin da, baita ere hizkuntza eta kultura berreskuratzeko gogoan izan beharreko irizpide zenbaiten arabera. Be launaldi jakin baten tartean kantuon, jolason eta ipuinen erabileraren oroimena galdu egin dela oharturik abiatu nintzen

kiekeen aditasuna ez galtzea. Liburuaren sormen prozesuan zereginik delikatuena, aldiz, musikaren hautatzea, haren grabazioa eta ondorengo ekoizpena izan ziren. Horretan, oroz gain, soiltasuna nagusi. Olerkiak nik neuk hautatu nituen, goranzko joeraz bilakatzeko aukera eskaintzen zutenen artean hautatu ere. Lehenik sehaska kantak eta esku-jolasak; hurrengo, altzorako jolas txikiak, CDari eta kantuetako batzuei batasuna ematen dien mantra berarekin nahastuak; hirugarren atalean oinez ikasteko jokoak, kantuak, mihi-korapiloren bat eta pilaketa-ipuina datoz; CDaren bukaera haurra hitz egiteko, istorioak kontatzeko, hizkuntzaren osagarri behinenekin joskera korapilatsua sortzeko, horretarako gutzirako gai izatera iristen denean dator.

Musikari dagokionez Aurélio Edler musikari brasildar-rangana jo nuen, hark, jatorriz, gure kantuei behar bezainbesteko distantziaz begiratu ahalko baitzien eta, horretara, askotan guk hemen ditugun aurreiritziak saihestu, aurreiritziek, jakina den bezala, gauzak norberaren ustez nolakoak izan beharko lirakekeen ikustarazten baitzizkigute, benetan nolakoak diren ikustea eragotziz. Esateko modu naturala eta oinarrian perkusioa duen sorturiko soinu-giroa izan zen gure hurrengo hautua. Perkusioa poesia-egitura bakoitzari egokitzen zaio, soinuak sortzeko tresna eta bide anitz erabiliz zereginean; esate baterako, danborraren azala laztanduz edota harparen sokaren igurtziz; horrez gainera, jos-

tailuak, txilintxoak, txintxirrinak eta beste asko erabiltzen ditugu.

Hala eta ere CDaren ezaugarri nagusia izanik lan osoaren esanahi sinbolikoarekin bat egin zezakeena falta zen. Lotura hori denik eta sinbologia antzinakoaren bidez etorri zen: bihotzaren taupadez.

Irakurzaletasuna sustatzeko proiektu osoaren funtsa da, hain zuzen ere, gizakiak garatzen duen lehen-lehenengo zentzumena entzumena den ziurtasunean datzalako ustea; laugarren hilabeteaz geroztik umontzian den horrek amaren soinean barrena igarotzen diren hotsak aditzen ditu. Jaio gabea, hala bada, erritmo etengabea murgildurik soinuez lagundurik garatzen da eta, behin jaiota, erritmo horrek eta hots horiek bere mundua ezagutzeko eta era berean horren eta kanpokoaren artean bereizteko gaitasuna ematen diote. Jaio baino ez eta hortxe hasten da pertsonak eta gauzak ezagutzen eta bere izatetik bereizten.

Hautaketak hautaketa, mantrarena egiten duen lo-kanta nagusitzen da, indartsu, grabazioan behin eta berriro aditzen denez gero.

*“Ttun kurrun kuttun
kuttun kuttuna,
loo, loo”*

Onomatopeia errepikatua eta erritmikoa da, zurezko sehaska kulunkatzean behegaineko zurerian joz hark sortzen duen hotsa gogorarazten duena: “Kurrun runkurrun...” “Loo-loo”. Era berean behin eta berriro aditzen da “kuttuna”, baita sehaska kantuaren leloa bera ere.

Harparako eta txalapartarako sorturiko gure musikak bihotzaren eta zuraren hotsen sinbologi onomatopeiko eta funts-funtsezko horrexeri atxiki nahi dio. Horrez gero lan osoa ulertzea ez da zaila; herri musikaren eta posiarenean uztarketan datza gakoa. Seaska kantuek baliabide bertsuak erabiltzen dituzte, hemen zein munduan haurra lasai dadin eta loak har dezan hots monokordeaz xuxurlatuz biko erritmoa errepikatzen dute, bihotzarenean, alegia.

Herriaren haur jolasek ikasketa-eskema bertsuak birsortzen dituzte. Haurraren psikomotrizitatearen garapenari laguntzen diote, jolasen bidez helduz joan dadin. Adibidez, haurraren aurpegiaren aurrean eskua kantuarekin bat hitztea, hark horrexeri adi jar

dadin (Maro-marotxu kantuan); edo hatzak zenbatzeko jolasak, “Honek txotxak bildu...” hasten dena, barbarako. Badira haurrak jolasean txalo egin dezan eskatzen duten kantuak ere, eta horiek eskuen koordinazio laguntzen diote. Azkenik, hortxe dira apatx ibiltzeko, jauzi egiteko eta haurrari haztean mugimenduaren beste alderdi batzuk lantzeko balio dituenak.

Hizkuntzaren ikasteaz eta garatzeaz gagozkiolarik, herri kantuek haren ikasteko eta erabiltzeko behinenak diren osagarriak eskaintzen dituzte, hala nola letren eta hotsen errepikak eta ahoskatzeari adierazgarritasuna eransten dioten askotariko intonazioak. Geroago beste hainbat ipuin laburren edukiak hurrenez hurren pila-tuz garatzen diren beste ipuin luzexkagoak ikasi ahal izango dituzte, horietan adierazten dutelarik joserik menderatzen doazela eta denbora-hurrenkerak asmatzeko gai direla.

Bestela ere, kontzeptuen aldetik hain zuzen ere, mundu zabaleko folkloretan gaien antzekotasuna dugu. Haurren negarrak lasaitzeko, zibilizazio guzti-guztiek erabili izan dituzte literatur egitura horiek, gero azpikontzientean sustraiturik geratzen diren antzin-antzinako erritmoaz harengana ekarritik. Era berean, hori dira jolasteko eta gorputzaz gozatzeko sortuak diren baliabideak: korri egiteko jolasak, kulunkatzekoak, mihikorapiloak, zenbakienak eta beste.

Badira, amaitzen joateko, aipatu behar diren beste alderdi batzuk, esaterako, bizitzari buruzkoan garrantzikoagoak diren ikasgaiak. Bizitzak dituen arriskuez ohartarazten duten, hala nola zera dioena: “...ez egin lorik basoan, azeritxoak jango zaitu, bildotsa zarelakoa...”. Etxeko gozoa eta kanpoko basoa, bereiztu beharrekoa.

Herriaren sehaska kantuetan heriotzaren beldurra ere ageri zaigu. Begiak ixten dituguneko Morfeoren mitoa errepikatzen da, zera, behin lo garelarik ez ote garen betiko desagertuko, ez ote gaituen ezerezaren muntroak irentsiko. Gauero guk guztiok eta nor bere alde-tik Orfeorekin abiatzen gara, musikak kulunkaturik, Euridize heriotzatik ekarriko dugun itxaropenaz abiatu ere, horrela gure burua ere salbatu dugulakoan. Gaztelar kantuan amak haurrari honelaxe dio: “Cierra, cierra, bien mío, tus ojos bellos aunque tu madre muera sin verse en ellos...” guk hartu dugun sehaskako horretan, berriz, honelaxe dio:

“Lo-lo

*Zuk orain eta nik gero.
Biok batera lo egiteko
Etxean inor ez dago”*

Bukatzeko, Elena Odriozolak ilustrazioekin egin duen lana aipatu nahi dugu. Liburuan lagungarri ageri diren irudiak sentsualak dira, euskarri duten musika pieza horiekin batera komunikazioari buruzko bidean eta zentzumen eta sentimenduen bilakaeran guztiz baliagarriak. Elena bera izan da kanpainaren irudi-diseinuaren arduraduna.

Liburua eta diskoa erdiesten ari diren harrera, hein handi batean bederen, alferreko apaindurez biluztua eta gurasoei zein irakasleei soiltasunez zuzendua izanari zor zaio. Proiektuan aholkatzen dugunarekin bat, diskoa nagusiek kantuak eta jolasak ikasteko erabili behar da, hantxe dira testu guztiak, hantxe azaldurik joko bakoitza. Alabaina, inguruan ditudan haurrek, bakarrik euren kasa geratu bezain laster, zeinek bere gogoko kantua hautatzen du eta halaxe jartzen diskoa jotzen.



Nahia eta Izei Astarloa (2010)

Eskoriatzako haur liburu mintegia

Eskoriatzako Haur Liburu Mintegiak 20 urte darama lanean.

Asko aldatu dira gauzak 20 urte hauetan. Hasi ginenean, Bartzelonako Rosa Sensat-eko mintegian oinarrituta eta haien laguntzarekin, gutxi argitaratzen zen euskaraz, haur liburutegiak oso gutxi eta murrizak ziren, profesional gutxi prestatuak, gure formazioa oso ahula zen haur literaturan, etab. Ia dena zegoen egiteko gure Herrian.

Hasieratik gure asmoa profesionalen prestakuntza izan zen eta aukeratu genuen bide ziurrena, zuzenena, ederreana, liburu ezagutza eta irakurketa zuzena, bitartekari gabeko gozamena.

Makina bat lan egin dugu urte hauetan: mintegiak, haurrekin hainbat jarduera irakurzaletasuna bultzatu nahian, erakusketak, eskolako bibliotekak bultzatu, eskolekin elkarlanean jardun, etab.

Bidean, hainbat kurtso, erakunde, elkarte, diru-laguntza sortu da eta gu gure oinarrizko eginkizunetara bueltatu gara, eginkizun apal baina garrantzitsuetara: irakurri, liburuak iruzkindu, irakurketarekin gozatu, solasaldian bihotza eta burua ireki.

Urteekin zorrotzagoak bihurtu gara, ardoaren zaleen moduan, haiek ez baitira konformatzen edozein ardorekin.

Orain, eta lan honek ez du izan etenik 20 urte hauetan, gure lanaren egitasmoa urtean zehar euskaraz haur eta gazte literaturan argitaratu den guztia irakurri, irakurketak kontrajarri eta liburu bakoitzaren balorazioa egin ondoren, "Haur eta Gazte Literatura Irakur gida" kaleiratzea da.

Gure helburuak hauek jarraitzen dute izaten:

- Haur eta gazteengan irakurketaren zaletasuna suspertzea

- Guraso, irakasle, liburutegi-zain eta aisialdiko elkar-teak orientatzea liburuaren aukeraketan

Helburu horiek lortzeko **lan batzuk** egiten ditugu:

- Argitaratzen den haur-literaturaren segimendua egin
- Liburuak aukeratzeko eta aztertzeko irizpideak landu eta aplikatu
- Liburuak kalitate literarioengatik, gaiaren tratamenduarengatik, etab. hautatu
- Lan eta hausnarketa hau argitaratu **Irakur Giden** bitartez (web-ean ere argitaratzen dira)

Bestalde, komeni zaigu deskribatzea **gure taldea**: "Haurrentzako liburuaren mintegia" talde iraunkorra eta irekia da eta bertan hainbat bibliotekari eta irakaslek hartzen dute parte.

2009-2010 ikasturtean parte hartzen duten erakundeak hauek dira: Oñatiko Udal Biblioteka, Bergarako Udal Biblioteka, Legazpiko Udal Biblioteka, Aramaioko Udal Biblioteka, Eskoriatzako Udal Biblioteka, Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola, Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola BHI, Arizmendi Ikastola Eskoriatza, Eskoriatzako Eceiza Eskola, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

Irailtik eta ekainera bitartean hamabostean behin biltzen gara, aipatu dugun moduan, **lan-metodoa** hau delarik: haur eta gazte literaturaz urtean zehar euskaraz argitaratu den guztia jaso eta irakurri, irakurketak kontrajarri gure artean eta liburu bakoitzaren balorazioa egin. Balorazio horretan oinarrituta osatzen da irakurketa-gida.

Bestalde, liburuaren balorazioa egiteko **jarraitzen ditugun irizpideak** honako hauek dira:

1. Liburuak eragiten digun plazera edota interesa

Esan dezakegu "usaimena" ("lectura ingenua" autore batzuen esanetan) daukagula liburu onak preziatzeko.

Sentsibilitate hori ez da berezkoa eta bai urteetako irakurketa eta lan komuna.

Baina irakurketa hau, batez ere konpartitzeko delako, hainbat irizpiderekin osatu edo kontrastatzen da; liburu edo narrazioaren ezaugarrietan oinarritutako irizpideekin.

Besteak beste, hauek dira irizpide garrantzitsuenak:

- Narrazioaren hizkuntza: erregistroa, metaforak, egitura sintaktikoak, lexikoa, sonoritatea, pertsonaien ahotsak, etab.
- Itzulpenaren kalitatea
- Istorioaren kalitatea: sinesgarritasuna, giza interesa, gaien trataera, etab.
- Narrazioaren hasiera, fikzioan kokatzen gaituelako, lirluratu edo "aspertu" egiten gaituelako...
- Istorioaren amaiera: erraza, konplexua, borobila, irekia, etab. Amaierak, sarritan, narrazioari zentzua ematen dio
- Pertsonaiak: definizioa, sinesgarritasuna, aberastasuna, etab.
- Liburuaren formatua: dimentsioak, materiala, etab.
- Liburuaren konposizioa: testua eta ilustrazioaren koordinazioa, teknika, estetika, etab.
- ...

2. Irakurleen (ume eta gaztetxo) konpetentzia

Gure abantaila bikoitza da:

- Taldearen aniztasuna: irakasleak eta liburutegiko arduradunak (karga akademikorik gabekoak)
- Haurrak eta gazteak gertu izatea, gure irakurketa eta iritziak osatu eta aberastu ahal izateko

Irakur-gidak, aipatu dugun moduan, euskaraz argitaratutako liburu gehienak jasotzen ditu, honelako egiturarekin: lehendabizi, irakurritako liburuen zerrenda orokorra doa eta ondoren, bi multzotan banatuta: gomendagarriak eta oso gomendagarriak, adinka sailkatuta (2 urtetik aurrera, 4 urtetik aurrera, 6 urtetik aurrera, 8 urtetik aurrera, 10 urtetik aurrera, 12 urtetik aurrera, 14 urtetik aurrera, 16 urtetik aurrera). Liburu oso gomendagarriak, gainera, iruzkinduta agertzen dira.

Adinaren kontua dela eta, garbi utzi behar dugu agertzen den adina orientagarria besterik ez dela, bilakera-erritmoak, haurren zaletasunak, etab. sailkaezinak baitira. Dena den, ezin da ahaztu oso garrantzitsua dela haurrek liburuak libreki aukeratzea eta hori funtsezkoa dela irakurtzeko grina sortzeko.

Behin Gida argitaratuta, Euskal Erkidegoko Ikastetxe guztietan banatzen da (paperezko formatuan) eta edonoren esku dago web formatuan, irakurlego zabalari begira: bibliotekariei, irakasleei, gurasoei, etab.

Galtzagorri elkarteak

Galtzagorri Elkarteak 1990ean sortu zen euskarazko Haur eta Gazte Literatura sustatu eta ezagutarazteko xedez. Horretarako hainbat egitasmo egiten ditu urtero. Elkarteak, hortaz, literatur genero horrekin harremana duen edonork har dezake parte, dela idazle eta ilustratzaileek, irakasleek, bibliotekariak, itzultzaileak, liburu saltzaileak... haur eta gazte literaturazale den edonork.



Galtzagorri elkarteak

- Irakur zaletasuna pizteko ekimenak antolatzen ditu, hala nola, Liburu Gaztea, Liburuaren Altxorra edota literatur aretoak urtero.
- Liburuaren inguruko elkarte profesionalen interesak defendatzen ditu, ahal den heinean.
- Liburuaren ezagutza eta zabaltze lanetan saiatzen da. Horretarako mintegi bat egiten du, non urteroko argi-

talpen berriak irakurri eta aztertzen diren.

- Irizpide literarioak zabaltzen ditu. Betebehar hau egiteko kolektiboen formaziorako egitasmoak lantzen ditu, besteak beste ikastaroak antolatuz.

Galtzagorri elkarteak Estatuan

- Estatuko gainontzeko hizkuntzetako Haur eta Gazte Literaturako elkarteekin batera federatua dago OEPLI (Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil) izeneko erakundeak.
- Euskal Haur eta Gazte Literaturaren ordezkaria egiten du OEPLI lantzen dituen eremuetan.
- Andersen sarietarako euskal idazle, ilustratzaile eta itzultzaileak proposatzen ditu.
- Galtzagorri Nazioartean Haur eta Gazte Literaturaren entzute handiena duen IBBY erakundeak kaleratzen duen Ohorezko Zerrendarako euskal idazle/ilustratzaile eta itzultzaileak propo-

satzen ditu. Une honetan zerrendan ditugu, esaterako, Mariasun Landa eta Elena Odriozolaren liburu bana.

- Lazarillo sarietan euskal hautagaiak proposatzen ditu.
- Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionaleko ordezkaria du.
- Euskal liburuei, sortzaile eta ikerlariei kanpoko foroetan presentzia bermatzen die: Biltzarrak, Liburu Azokak (Leer León edota Liber)...



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA